

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3894

AGINDUA, 2017ko uztailaren 14koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, euskal poneya-pottoka zaldi arrazaren berariazko araudia onartzekoa.

Etxeko abereen dibertsitatea funtsezkoa da agrodibertsitaterako. Inguruneak nahiz gizakiak eragindako hautapen-prozesuetatik sortu dira arrazen arteko desberdintasun genetikoak. Etxeko abere-espezie eta -arrazen behar desberdinek, bai eta jokabide eta produktu desberdinek ere, ondorioak dituzte ekoizpen-ingurune bakoitzean. Denetariko ingurune horiek jasangarriak izango badira, denetariko mota genetikoak egon behar dute. Etxeko abereen dibertsitatea gure ondarearen zati bat da, eta zutik eutsi behar diogu hurrengo belaunaldientzat.

Biologia Dibertsitatearen 1993ko Konbentzioak lehenengo aldiz heldu zien biologia-dibertsitatearen alderdi guztiei; lehenengo aldiz aitortu zuen, halaber, biologia-dibertsitatea kontserbatzea gizaki guztien ardura dela eta garapen-prozesuaren zati integral bat dela.

Euskal poneya edo pottoka estandar ofizialeko arraza gisa aintzatetsi zen Euskal Autonomia Erkidegoan Industria, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak pottoka zaldi-arrazaren berariazko araudia onartzeko eman zuen 1995eko ekainaren 7ko aginduaren bitartez. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko azaroaren 12ko aginduak, pottoka zaldi-arrazaren berariazko araudia onartzekoak, aldatu egin zuen aurrekoa eta arraza-ziurtagiriak ezartzeko eta irizpide estandarrak bateratzeko tresnak eskaini zituen, gurutzatzeak antolatuta eta optimizatzeaz gain, odolkidetasuna murrizteko. Hori guztia arraza berreskuratzeko eta genetikoki hobetzeko programak bultzatzen dituen zaldi-hazkuntza sustatze aldera. Helburua da, azken buruan, animalien erabilgarritasun ekonomikoa sustatzeko gaitasuna bultzatzea, eta, horrenbestez, arraza autoktono horren etorkizun iraunkorra ere bai. Hori guztia animalioek zenbait zaldi-diziplinetarako (zama arinak garraiatzeko eta saltoak egiteko, esaterako) erabiltze aldera azken urteotan eginiko lanaren ildotik. Pottoka oso aproposa da batez ere umeekin lan egiteko.

Abere-arrazen eta horien garapenerako erakundeen gaineko araudi berria eta, zehazki, Euskal Herriko abere-arraza autoktonoak kontserbatu, hobetu eta sustatzeko eta abere-arrazak sustatzeko erakundeak arautzeko ekainaren 2ko 81/2015 Dekretua direla medio, egokitu egin behar da Liburu Genealogikoaren kudeaketa.

Euskal Autonomia Erkidegoak abeltzaintza alorrean duen eskumen eksklusiboaren egikaritzaren barruan, eta abere-ekoizpen eta -osasunaren alorreko zerbitzuak Estatutik Euskal Autonomia Erkidegora eskualdatzeari buruzko uztailaren 24ko 2030/1981 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren berariazko araudia I. eranskinean dago jasota, eta II. eranskinean, aldiz, Kalifikazio-orria.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egingo da Industria, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko azaroaren 12ko Agindua, pottoka zaldi-arrazaren berariazko araudia onartzekoa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA

EUSKAL PONEYA-POTTOKA ZALDI-ARRAZAREN BERARIAZKO ARAUDIA.

SARRERA

Euskal poneya-pottoka Euskal Herriko zaldi-arraza autoktonoa da, duela 30.000 urte bertan bizi zena jada, haitzuloetako margolanek agerian uzten dutenez. Purutasunari eutsi dio orain gutxi arte, baina Euskal Herriko eremu batzuetan kanpoko arrazekin hibridatzeko prozesuak arriskuan jarri zuen espeziearen biziraupena.

Animalia horiek maneiatzeko eta ekoizteko sistemak bere horretan jarraitzen du antzinatik, eta ez du aldaketarik izan etxekotu zirenetik. Hala, animalioek sistema estentsiboan ustiatzen dira herri-basoetan, erdi-aske, kontzejuen behor- eta zaldikoek eta hazitarako animalia batek osatutako taldeetan, eta, salbuespen gisa, pottokak batu egiten dira, behokak hautatu eta zaldikoak bereizteko.

I. KAPITULUA

EUSKAL PONEYA-POTTOKA ARRAZAREN PROTOTIPOA

1.– Definizioa.

Arau hauetan zehazturiko arraza-prototipoarekin bat datozenak hartuko dira euskal poneya-pottoka zaldi-arrazakotzat.

2.– Arrazaren aldaerak.

Euskal poneya-pottoka zaldi-arrazak ez dauka aldaerarik.

3.– Ezaugarri morfologikoak.

3.1.– Orokorrak.

Osaera orokor neurritsuko animaliak dira, elipometrikoak (pisu gutxikoak euren espezieekin konparatuta); soslaiak apurtxo bat konkaboak dituzte, eta proportzionatuak dituzte luzera eta altuera.

3.2.– Bertakoak edo espezifikokoak.

- a) Buruaren profila: zuzena edo azpikonkaboia, nahiz eta konbexidade arin bi izan, bat beko kiaren azpiko aldean eta beste bat sudurzuloen atzealdearen parean; horren ondorioz, azpiko ezpaina goikoa baino apurtxo bat atzeratuago daukate.
- b) Burua: orokorrean, harmoniatsua da, larru finekoa, piramide itxurakoa eta proportzionatua. Animalia batzuek barbokejoa (bizar moduko bat) izan dezakete masailezurrean, eta biboteak ezpainetan. Egokitzen natural horri esker, zaldi hauek badute negu partean elikatzea bizi diren ingurunean.
- c) Bekokia: laua.
- d) Sudurzuloak: zabalak, apurtxo bat aurrerantz, ezpain lodiak.

- e) Begiak: betzuloak irtenak eta markatuak, begi handiak, biziak, almendra-itxurakoak, ilunak eta adierazkorrak, ageri-agerian aurpegian.
- f) Tupea: ezaugarri bereizgarria dute, begien gainean; arrek bereziki oparoa daukate.
- g) Aurpegia: zuzena edo konkabo samarra.
- h) Belarriak: txikiak edo ertainak, erraz mugitzen dituzte, barruko aldean ileak dituzte, batez ere neguan; ondo jarriak daude, goiko aldean, aurrerantz begira. Oinarrian kanpora egiten dute eta puntetan barrura.
- i) Lepoa: sendoa eta indartsua, zabala eta enbor eta buruarekin ondo proportzionatua. Zurda sinplea dauka gurutzeraino, albo bakar baten gainean erortzen dena. Zurda ugari eta luzeak.
- j) Enborra: soslai azpikonkabo baten barruan ezartzen da.
- k) Gurutzea: ez da nabaria.
- l) Bizkarra: apurtxo bat zehar; oso artikulazio-oinarri ona ematen die aurreko gorputz-adarrei.
- m) Bularra: eliptikoa eta sendoa; arrek zabalagoa dute.
- n) Saihets-hezurak: alboko aldea saihets konbexu samarren gainean bermatzen da, eta, horren ondorioz, saihets-hezurren multzoa makotu samar daukate.
- o) Bizkarraldea: soslaia konkabo samarra duena.
- p) Zerra: okertua, zabalagoa luzea baino. Laburra. Hezur sakroko aldeak apurtxo bat jausita ditu, eta horrek oso berezko duen zerra sortzen du, apurtxo bat makotua.
- q) Buztana: oso behetik sortzen zaio, oso zurdatsua da, eta apalardatzetik behera hel daiteke.
- r) Hanka-jarrerak: egokiak eta erregularrak, atzekoak izan ezik, horiek okerrak eta kanporantz jotzeko joera baitute.
- s) Gorputz-adarrak: luzera ertainekoak eta proportzionatuak; meheak baina indartsuak; hezurdura bikaina.
- t) Aurreko gorputz-adarrak: beso eta besaurreak, iharrak. Belauna zabala, hezurtsua. Kanabera laburra, tendoi nabarmenak. Neguan, ile-xerlo gutxi batzuk izan ditzakete, baina normalean ez dituzte estaltzen azpitik koroa, ezta goitik hatz-koskorak ere. Dena den, arraza-nahasketaren adierazgarritzat joko dira, negutik kanpo horrelako ile ugari agertuz gero.
- u) Atzeko gorputz-adarrak: izter garatua. Ipurmasail eta hanka gihartsuak. Belaunburu zabal eta sendoak. Kanabera laburrak, tendoi nabarmenak. Apalardatza aurreko gorputz-adarretakoak bezalakoak.
- v) Apoak: txiki eta borobilak, aurrekoak eliptikoagoak dira, ondo jarriak eta oso gogorrak.
- w) Kolorea: beltza edo gaztainakara iluna.
- x) Ezaugarri zoometrikokoak: hona arraza definitzen duten ezaugarri zoometrikoko nagusiak, arrak eta emeak bereizirik:

NEURRIA*	Batezbestekoa	Bariantza	Desb. Tip.*	Emeak: batezbestekoa	Arrak: batezbestekoa
Gurutzerainoko altuera	123,67	16,47	4,06	124,97	123,48
Zerraren aurrerainoko altuera	124,70	18,96	4,35	124,61	125,37
Buztan-hasierainoko altuera	115,76	20,49	4,53	115,79	115,54
Esternoi-atzealdearen diametroa	56,47	10,27	3,21	56,39	56,97
Luzera-diametroa	126,57	40,56	6,37	126,63	126,14
Bularraren zabalera	18,28	4,78	2,19	18,12	19,42
Zerraren zabalera	41,11	9,12	3,02	41,16	40,77
Zerraren luzera	37,99	9,71	3,12	37,95	38,29
Perimetro torazikoa	147,52	72,00	8,49	147,41	148,30
Besoaren perimetroa	16,12	0,74	0,86	16,07	16,49
Buruaren zabalera	19,92	1,63	1,28	19,90	20,06
Aurpegiaren zabalera	15,45	1,62	1,27	15,40	15,80
Garezurraren zabalera	14,79	1,31	1,15	14,74	15,13
Buruaren luzera	52,00	11,46	3,39	52,02	51,83
Aurpegiaren luzera	33,09			33,15	32,61
Garezurraren luzera	18,91	4,42	2,10	18,87	19,22
Pisua (Crevet)	226,97	152,68	39,07	226,50	230,22

3.3.– Izaera eta portaera.

Arraza honek oso jite primitiboa dauka oraindik, ez baita apenas hobetu. Animalia hau, bere ingurunean dabilenean, zarpaila, soilta eta gogorra izaten da. Lanean, berriz, oso noble eta esanekoa da, eta ikasteko gaitasun handia dauka, baita lan egiteko izaera aproposa ere.

Zama arinak garraiatzeko gaitasun nabarmena dauka, baita zelatzeko zaldi gisa erabiltzeko ere. Albo bereko hankak eta besoak batera mugituz ibiltzeko trebetasuna ere badauka.

3.4.– Ezaugarri baztertzailak.

- a) Larruaren kolorea beltza edo gaztaintara iluna ez izatea.
- b) Begien kolorea gaiztaintara oso iluna ez izatea.

II. KAPITULUA

KALIFIKAZIO MORFOLOGIKOA

Ugalketarako erabiltzen diren animalien kalifikazio morfologikoa egiteko, puntuazio bat emango zaie, ondoko baremo eta alderdi hauek kontuan hartuta:

KALIFIKAZIO HAMARTARRA	EZAUGARRIAK	KOEFIZIENTEAK		PUNTUAK
		ARRAK	EMEAK	
Perfektua 10	Burua	0,75	0,75	
	Lepoa	0,75	0,75	
Bikaina 9	Sorbalda eta gurutzea	1	1	
Oso ona 8	Bularra eta saihetsak	1	1	
Ona 7	Bizkarra eta gerruntzea	1	1	
Balekoa 6	Zerra eta buztana	1	1,5	
Hala-holakoa 5	Gorputz-adarrak eta hanka-jarrera	1,5	1,5	
Eskasa 4-3	Sexu-ezaugarriak	0,5	0,5	
Txarra 2-1	Eiteen osotasuna	1,5	1	
	Mugimenduak	1	1	
OROTARA				

Kalifikatu beharreko animaliek hiru urtetik gorakoak izan beharko dute, eta behar bezain identifikatuta egon.

Arrak lehenengo aldiz kalifikatuko dira, behin behingoz, 3 urte bete ondoren, eta berriz kalifikatu beharko dira, ezinbestean, 6 urte dituztenean. Hala, arrek 6 urte baino gehiago izanik ez badira berriz kalifikatu, ugalketarako ez gaitzat joko dira, eta halaxe jarraituko dute horretarako gaitzat jo arte. Behin-behingo kalifikazioa izan arren ondorengoak ezin izango dira kalifikatu, eta, horrenbestez, ezin izango dira Jaiotza Erregistrotik Behin Betiko Erregistrora igaro (edo A kategoriako Erregistro Osagarriko Jaiotza Erregistrotik B kategoriako Erregistro Osagarri), baldin eta aita ez gaitzat jo badute bigarren kalifikazioan.

Animalia bat kalifikatzeko egin beharrekoak:

- a) Neurri zoometrikokoak hartzea.
- b) Kontrol genealogikoa egiteko laginak hartzea, hala badagokio.
- c) Hiru argazki ateratzea animalia bakoitzari: bi alboetatik bana (ezkerretik eta eskuinetik) eta beste bat aurrealdetik, buruarena.
- d) Kalifikazioa bera.
- e) Akats baztertzailak eta zigortzailak bildu.
- f) Ugalketarako gai den ala ez ezarri.
- g) Kalifikazio-agiria bete eta sinatu.

Hona animalia ugalketarako ez gaitzat jotzeko akatsak:

- a) Ar monorkidoak edo kriptorkidoak.
- b) Orban zuriak buruan:
 - Arrak: bekokiko zuriuneak (txiki eta irregularrak zein handixeago eta erregularrak) edo sudur eta ezpain aldeko banda-formako zuriuneak (ileak izan ezik).
- c) Haragi-orbanak:
 - Arrak: edozein.
- d) Hanketako orbanak:
 - Arrak: hanketako akatsengatik punturen bat daukatenak.
 - Emeak: hanketako akatsengatik 8 puntutik gora dutenak.
- e) Apoak:
 - Arrak: apo handiak.
 - Arrak: edozein orban apoetan (apo zuria edo zurixka).
- f) Kalifikazioa:
 - Emeak: < 70 puntu.
 - Arrak: < 80 puntu.

Kalifikazioa honela kalkulatu da: lortutako kalifikaziotik akats zigortzaileak (ondoren azaltzen direnak) kenduta, behean aipatutako akatsak kontuan hartu barik.

Akats zigortzaileak:

Akats zigortzaileak dira II. eranskineko Kalifikazio Orrian akats gisa bildutakoak.

Liburu Genealogikoaren Batzordeak ezaugarri zigortzaileak eta euren balorazioa ebaluatu ahalko ditu, datuen gaurkotzea proposatzeko, animalien hobekuntzan nola egiten ari den aurrera kontuan hartuta.

III. KAPITULUA

LIBURU GENEALOGIKOAREN EGITURA

Euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren Liburu Genealogikoak ondoren azaltzen diren erregistroetan egituratzen da. Animalien banan-banako identifikazioa, indarrean dauden arauen arabera, ezinbestekoa izango da aipatutako edozein erregistrotan inskribatzeko eskatzen duten guztientzat.

3.1.– Fundazio Erregistroa (FE).

Baldintza hauek bete beharko dituzte erregistratuko animaliek:

- a) Hiru urte baino gehiago izatea.
- b) Lurralde bakoitzeko hazle-elkarteen erregistroetan inskribatuta egotea 2005eko maiatzaren 11 baino lehenagotik.

- c) Arraza-prototipoaren betekizunak betetzea eta Liburu Genealogikoaren Batzordeak gaitzat jotzea.

Fundazio Erregistroa 2005eko maiatzaren 11n itxi zen. Erregistro Osagarria, berriz, egun horretatik aurrera irekita dago.

Animaliek erregistro horretan jarraitzea euren ondorengoen kontrolean lortzen diren emaitzen baitan egongo da, eta ugalketarako ez den pottokatzat joko dira, kontrako eragina antzemanaz gero eta betiere Liburu Genealogikoaren Batzordeak horrela ezarriz gero.

3.2.– Erregistro Osagarria (EO).

Erregistro Osagarria 2005eko maiatzaren 11z geroztik dago irekita. Bertan emeak inskribatuko dira, baina bakarrik baldin eta arraza-ezaugarri definituak izateaz gain, aurrekari genealogiko batzuk edo guztiak erregistratzeke badituzte, eta betiere honako baldintzak betetzen badituzte:

- a) Hiru urte baino gehiago izatea.
- b) Arraza-prototipoaren baldintza betetzea, gutxienez 75 puntuko kalifikazio morfologikoarekin.
- c) Behin Betiko Erregistroan inskribatzeko behar diren aurrekari genealogikorik ez izatea, eta ez izatea deskalifikatua izateko moduko akatsik. Animaliek erregistro horretan jarraitzea euren ondorengoen kontrolean lortzen diren emaitzen baitan egongo da, eta ugalketarako ez den pottokatzat joko dira, kontrako eragina antzemanaz gero eta betiere Liburu Genealogikoaren Batzordeak horrela ezarriz gero.

Erregistro Osagarriak (EO) kategorია hauek ditu:

3.2.1.– EOA kategoría.

Oinarrizko emeak: lehen ezarritako baldintzak betetzen dituztelako erregistratzen direnak.

3.2.2.– EOB kategoría.

Lehenengo belaunaldiko emeak: EOA kategoriako ama eta Behin Betiko Erregistroan edo Fundazio Erregistroan inskribatutako aita dauzkatena. EOB kategorian inskribatutako emeen ondorengoak, ar zein eme, Jaiotza Erregistroan inskribatuko dira.

Gainera, Erregistro Osagarriak jaiotzeak inskribatzeko sekzio bat izango du. Bertan, emeak behin-behingoak inskribatuko dira, baldin eta euren amak EOA kategorian eta aitak Behin Betiko Erregistroan edo Fundazio Erregistroan inskribatuta badaude, eta EOB kategorian inskribatzeko modukoak badira, 3 urte betetzen eta gaitasun-probak gainditzen dituztenean.

3.3.– Jaiotza Erregistroa (JE).

Erregistro horretan jaiotzen diren animalia guztiak inskribatuko dira, ar zein eme, baldintza hauek betez gero:

- a) Ugalketarako gaitzat jotako animalien gurutzaketaren emaitza izatea. Horretarako, gurasoak Fundazio Erregistroan edo Behin Betiko Erregistroan inskribatutakoak edo EOB kategoriako amak izan behar dute, betiere arrazaren berezko ezaugarriak badituzte.
- b) Seme-alabatasun egokia dutela bermatzen badute, dagokion estaltze-aitorpenaren bidez.
- c) Seme-alabatasun genetikoaren kontrola exijituko da, Liburu Genealogikoaren Batzordearen irizpidearen arabera.

Animaliak sei hilabete dituenean, amaren titia kendu aurretik, egin behar zaio inskripzioa, jaiotza-aitorpena egiterako unean. Animalia behin-behingo egongo da ugalketarako ez gaitzat jo eta inskribatuta, geroago, 3 urte betetzen dituenean, berriz kalifikatu arte. Kalifikazioa egiterakoan Batzordeak erabakiko du animaliak Behin Betiko Erregistroan inskribatu behar diren.

3.4.– Behin Betiko Erregistroa (BBE).

Erregistro honetan Jaiotza Erregistrotik (JE) datozen animaliak baino ezingo dira inskribatu, betiere honako baldintza hauek betez gero:

- a) Hiru urte baino gehiago izatea.
- b) Jaiotza Erregistroan inskribatuta egotea.
- c) Arraza-prototipoaren betekizunak betetzea eta Liburu Genealogikoaren Batzordeak gaitzat jotzea.

Ugaltzeko ez gaitzat joko dira, nahiz eta Jaiotza Erregistroan inskribatuta egon, 70 puntu baino gutxiago lortzen duten emeek eta 80 puntu baino gutxiago lortzen duten arrek. Era berean, eta ondorengoan kontrolean lortzen diren emaitzen arabera, pottoka ugalketarako ez gaitzat joko dira, aurkako eragina antzemanaz gero eta betiere Liburu Genealogikoaren Batzordeak horrela ezarriz gero.

IV. KAPITULUA

INSKRIPZIOA

Liburu genealogikoan inskripzioak egin daitezke jatorriagatik (Jaiotza Erregistroan edo EOB kategorian) edo Erregistro Osagarrian (EO).

- a) Jatorriagatik inskribatzea:
 - Ama pottoka-arrazako behorra duten animaliak automatikoki erregistratuko dira Jaiotza Erregistroan (JE), baldin eta behor horiek Fundazio Erregistroan (FE), Behin Betiko Erregistroan (BBE) edo EOB kategorian erregistratuta badaude eta Fundazio Erregistroan (FE) edo Behin Betiko Erregistroan (BBE) erregistratutako hazitarako eta ugalketarako gaitzat jotako pottoka-arrazako arrek estali badituzte. Horretarako, betiere, estaltze- zein jaiotza-aitorpenak beharko dira. Liburu Genealogikoaren Batzordeak erabakiko du aitatasuna kontrolatzeko zer proba egin behar den.
 - Erregistro Osagarriaren (EO) jaiotza-sekzioan inskribatuko dira ama pottoka-arrazako behorrak dituzten emeak, Erregistro Osagarrian erregistratutakoak, euren amak Fundazio Erregistroan (FE) edo Behin Betiko Erregistroan (BBE) inskribatutako eta ugalketarako gaitzat jotako hazitarako pottokek estali badituzte. Horretarako, betiere, estaltze- zein jaiotza-aitorpenak beharko dira. Liburu Genealogikoaren Batzordeak erabakiko du aitatasuna kontrolatzeko zer proba egin behar den.
- b) Erregistro Osagarrian (EO) inskribatzea: eranskin honetako 3.2 atalean zehazten diren betebeharrak betetzen dituzten emeak inskribatuko dira.

Animalien identifikazio ofiziala egiteko ezarritako sisteman oinarrituko da.

Ugalketarako ez gaitzat joko dira Jaiotza Liburuan inskribatu bai, baina kalifikatzeke dauden edo kalifikazioa gainditzeke duten animaliak, eta, horrenbestez, haien ondorengoak ezin izango

dira Jaiotza Erregistroan inskribatu. Salbuespenez, eta Liburu Genealogikoaren Batzordearen irizpidearen arabera, Jaiotzaren ondoren Behin Betiko Erregistroan inskribatutako animalien ondorengoak Jaiotza Erregistroan inskribatu ahalko dira.

V. KAPITULUA

LIBURU GENEALOGIKOAREN BATZORDEA

1.– Liburu Genealogikoaren Batzordea eratzea.

Euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren Liburu Genealogikoaren Batzordea eratu da.

2.– Liburu Genealogikoaren Batzordearen eginkizunak.

Hauek dira euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren Liburu Genealogikoaren Batzordearen eginkizunak:

- a) Liburu Genealogikoaren funtzionamendu- eta lan-arauak idaztea eta onartzea, eta eginkizunak zehaztea liburua eramatea aitortu zaion erakundeari eta erakunde horren barruan egon litezkeen elkarteei.
- b) Aitortutako erakundearen jardueren jarraipena egitea, batez ere lege-betebeharrena.
- c) Liburu Genealogikoaren funtzionamenduko gorabeherak aintzat hartzea eta konpontzea.
- d) Hobekuntza Planeko Kudeaketa Batzordearen barruan egongo den animalien genetika-zentroa ezartzea.
- e) Baimendutako kalifikatzaileak proposatzea.
- f) Gehiengo ados dela, fundazio-liburuaren irekiera eskatzea agintaritza eskudunari.

3.– Liburu Genealogikoaren Batzordearen kideak.

Honako hauek izango dira Liburu Genealogikoaren Batzordeko kideak, euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundea ordezkatzuz:

- a) Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundeko presidentea izango da Batzordeko presidentea.
- b) Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundeko 3 ordezkari. Lurralde Historiko bakoitzeko batzordekide eta hazle-elkarteen ordezkari izan behar dute. Nor izendatu elkarte horietako bakoitzari kontsultatu ahal zaio, eta haien arautegiei jarraituz jokatu dute.
- c) Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundeko edo hura osatzen duten hazle-elkarteetako lantalde teknikoko kide bat, gutxienez.

Kide horien artean hautatuko da Batzordeko idazkaria.

Batzordeko presidentek egoki jotako autonomia- edo lurralde-administrazioko teknikariak gonbida ditzake bileretara, bere ekimenez edo bi kidek edo gehiagok eskatuta. Teknikari horiek bileran parte hartuko dute, ahotsa bai baina botorik gabe.

4.– Liburu Genealogikoaren Batzordearen funtzionamendua.

- a) Ohiko bilkura bat egingo du urtean behin.
- b) Ezohiko bilkurak ere dei daitezke; baldintzak:
 - Batzordeko buruak eskatzea, edo
 - Edo, gutxienez, kideen % 66k eskatzea.
- c) Ezohiko deialdi hori, gutxienez, 15 egun lehenago egingo da. Deialdian gai-zerrenda azaldu behar da, eta gai bakoitzean erabiliko den dokumentazioa banatuko da.

Liburu Genealogikoaren Batzordeko kideen % 66 da gutxienerako quoruma.

VI. KAPITULUA

HOBKUNTZA PLANAREN KUDEAKETA BATZORDEA

1.– Hobekuntza Planaren Kudeaketa Batzordea eratzea.

Euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren Hobekuntza Planaren Kudeaketa Batzordea eratu da.

2.– Hobekuntza Planaren Kudeaketa Batzordearen eginkizunak.

Honako hauek dira Batzordearen eginkizunak:

- a) Arrazaren Kontserbazio Programa eta helburuak finkatzea, edo Hautapen Programa, lehen helburua betetakoan.
- b) Arrazaren Hedapen Programa eta helburuak finkatzea.
- c) Arrazaren mantentze-, sustatze- eta hobetze-programak garatzea, koordinatzea eta jarraipena egitea.
- d) Euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren berariazko prototipoaren aldaketak proposatzea.

3.– Hobekuntza Planaren Kudeaketa Batzordearen osaera.

Honako kide hauek osatuko dute Batzordea:

- a) Euskal poneya-pottoka zaldi-arrazaren Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundearen ordezkari gisa:
 - Arrazaren Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundeko presidentea, zeina Batzordeko presidentea izango den.
 - Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundeko 3 ordezkari. Lurralde Historiko bakoitzeko batzordekide eta hazle-elkarteen ordezkari izan behar dute. Nor izendatu elkarte horietako bakoitzari kontsultatu ahal zaio, eta haien arautegiei jarraituz jokatu dute.
 - Liburu Genealogikoa eramatea aitortu zaion erakundeko edo hura osatzen duten elkarteetako lantalde teknikoko kide bat.

Ordezkar horietako bat izango da Batzordeko idazkari.

- b) Liburu Genealogikoaren Batzordeak hautatutako genetika-zentroko teknikari bat, gutxienez.


4.– Hobekuntza Planaren Kudeaketa Batzordearen funtzionamendua:

- a) Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez.
- b) Ezohiko bilkurak ere dei daitezke; baldintzak:
 - Batzordeko buruak eskatzea.
 - Edo, gutxienez, kideen % 66k.
- c) Deialdiak, gutxienez, 15 egun lehenago egin behar dira, eta jorratuko diren gaien berri eman behar da. Gai-zerrendako puntu bakoitzean erabiliko den dokumentazioa ere banatuko da deialdiarekin batera.
- d) Batzordeko kideen % 66 da gutxieneko quoruma. Betiere, genetika-zentroko teknikariak egon behar du bertan, edo, bestela, hark egindako txosten bat, proposamenekin bat dato-rela adierazten duena.

2017ko abuztuaren 2a, asteazkena

II. ERANSKINA

KALIFIKAZIO ORRIA



2017ko abuztuaren 2a, asteazkena

ANIMALIAREN DATUAK / DATOS DEL ANIMAL					
Identifikazio zk. Nº identificación		Mikrotxip zk. Nº microchip		Izena Nombre	
Espezia Especie		Arraza Raza		Kolorea Capa	
Sexua Sexo	Jaiotze data Fecha nac.		Gaitasuna Aptitud		Beste daturen bat Algún otro dato
Aitaren identifikazio zk. Nº identificación del padre			Amaren identifikazio zk. Nº identificación de la madre		
JABEAREN DATUAK / DATOS DE LA PROPIETARIA					
Deiturak Apellidos		Izena Nombre		N.A.N. D.N.I.	
Ustialekuaren kodea Código exp.		Herria/ Probintzia Población / Provincia		Posta kodea C.P.	Telefonoa Tel.
Helbidea Domicilio		Herria/ Probintzia Población / Provincia		Posta kodea C.P.	Telefonoa Tel.
USTIALEKUAREN DATUAK / DATOS DEL ESTABLO					
Izena Nombre		Ustialekuaren kodea Código exp.		Herria/ Probintzia Municipio / Provincia	
ZENTSATZE DATUAK / DATOS DE REALIZACION DEL CENSADO					
Albaitaria / Veterinaria		Jabea ados Conforme propietaria		Data / Fecha	
Elkargoko zk./ Nº col. Sinadura / Firma				Sinadura / Firma	

EZAUGARRI ZOOMETRIKOAK			
GURUTZERAKO ALTUERA		GAREZURRAREN ZABALERA	
PALOMILLETARAKO ALTUERA		BURUAREN ZABALERA	
BUZTANAREN HASIERARAKO ALTUERA		AURPEGIAREN ZABALERA	
LUZERA		GAREZURRAREN LUZERA	
DIAMETRO DORSO-ESTERNALA		BURUAREN LUZERA	
BULARRAREN ZABALERA		BULARRAREN BUELTA	
ZERRAREN AURREKO ZABALERA		KANABERAREN BUELTA	
ZERRAREN LUZERA			

2017ko abuztuaren 2a, asteazkena

KALIFIKAZIOA					
			EMANDAKO PUNTUAK	KOEFIZIENTEAK	
				ARRA	EMEA
PERFEKTUA BIKAINA OSO ONA ONA BALEKOA HALA- HOLAKOA ESKASA TXARRA	10	BURUA		0,75	0,75
		LEPOA		0,75	0,75
	9	SORBALDA ETA GURUTZEA		1	1
	8	BULARRA ETA SAHIESKIAK		1	1
	7	BIZKARRA		1	1
	6	ZERRA ETA BUZTANA		1	1,5
	5	HANKAK ETA APLOMOAK		1,5	1,5
	3-4	EZAUGARRI SEXUALAK		0,5	0,5
	2-1	IZAERA ETA ITXURA OROKORRA		1,5	1
		MUGIMENDUAK		1	1
				(A) GUZTIRA	

AKATSAK

					PUNTU KENKARIAK
KRIPTORKIDIA	<input type="checkbox"/>		(Ugalketarako ez gai) <input type="checkbox"/>		
IZARRA	0-2 cm <input type="checkbox"/> (-5)	2-5 cm <input type="checkbox"/> (-8)	> 5 cm <input type="checkbox"/> (-10)		
KORDOIA	Hasiera <input type="checkbox"/> (-5)	Laburra <input type="checkbox"/> (-8)	Luzea <input type="checkbox"/> (-10)	Zatitua <input type="checkbox"/> (-10)	Sudurreraino <input type="checkbox"/> (-12)
HARAGI ORBANAK	Arina <input type="checkbox"/> (-5)	Neurrizkoa <input type="checkbox"/> (-8)	Larria <input type="checkbox"/> (-10)		
HANKETAKO ORBANAK	Hazkozkor azpitik <input type="checkbox"/> (-5) Kopurua:	Kanabera erdi azpitik <input type="checkbox"/> (-8) Kopurua:	Kanabera erdi gainetik <input type="checkbox"/> (-10) Kopurua:		
APOAK	Ertainak eta biribilak <input type="checkbox"/> (-1)	Ertainak eta karratuak <input type="checkbox"/> (-2)	Handiak <input type="checkbox"/> (-3)		
APOETAKO ORBANAK	Apo batean <input type="checkbox"/> (-4)	2 apotan <input type="checkbox"/> (-8)	3 apotan <input type="checkbox"/> (-12)	4 apoetan <input type="checkbox"/> (-16)	
BELARRI NEURRIA	Handiak (-2)				
(B) GUZTIRA					

2017ko abuztuaren 2a, asteazkena

PUNTUAKETAREN EMAITZA

KALIFIKAZIOA (A) - PUNTU KENKARIAK (B) = EMAITZA

OBSERBAZIOAK:

BURUAREN SOSLAIA

.....

SOSLAI OROKORRA

.....

ZERRA MOTA

.....

BESTEAK

.....

SAILKAPEN TALDEA: POTTOKA EZ POTTOKA UGALKETARAKO GAITASUNA: BAI EZ ARRAZOIA

.....

ERABILERA BETIKOA KIROLA EGINTZAK: ODOLA TXARTELA ILEA ERREF. ZK:

KALIFIKATZAILEAK:

JABEAREN ADOSTASUNA:

DATA: